2. mailako Hirigintza: sarrera

GAIKAKO HIRI-IBILBIDEEN AZTERKETA

6. ariketa

Lau plano A-1 landuko ditu talde bakoitzak, aurreko ariketako herri berdina aztertuz:

1.- Kultura-ibilbidea: Lehen planoan kultura-ondare diren eraikinak, eraikin-multzoak eta espazio publikoak zehaztuko dira (elizak, dorretxeak, jauregiak, bestelako monumentuak, eta abar), haien arteko hiri-ibilbide bat sortuz. Koloreak: eraikinak, morez, eta espazio eraikigabeak, larrosaz.

2.- Kirol-ibilbidea: Bigarren planoan kirolekin erlazionatutako eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (polikiroldegiak, frontoiak, korrika egiteko guneak, eta abar), haien arteko hiri-ibilbide bat sortuz. Koloreak: eraikinak, urdin ilunez, eta espazio eraikigabeak, urdin argiz.

3.- Ibilbide geldoa: Hirugarren planoan hezkuntza-, kultura- osasun- eta gizartearen ongizate-dotazioak zehaztuko dira; hau da, astiro doazen hiritarrek (zaharrek eta umeek, bereziki) erabiltzen dituzten eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (eskolak, jolastokiak, egoitzak, anbulatorioak, merkataritza-guneak eta abar), haien arteko ibilbide bat sortuz. Koloreak: eraikinak, laranjaz, eta espazio eraikigabeak, horiz.

4.- Hiru ibilbideen batuketa: Laugarren planoan gaikako hiru hiri-ibilbideen batuketa zehaztuko da, ondorio nagusiak laburbilduz deskribapen labur batez (250 hitz gehienez), baita eskemen bitartez ere.

Ibilbideak itxiak (zirkularrak) ala irekiak (adardunak) izan daitezke, baita bien arteko nahasketak ere. Lehen hiru planotan eraikin eta kale nagusien izenak zehaztuko dira, haien argazkiak edo marrazkiak erantsiz eta izendatuz; ibilbide bakoitzeko sekzio esanguratsuena egingo da, nondik egin den adieraziz. Interesgarria den informazioa gehituko da (kale nagusien zabalerak, ibilbideen luzerak, ikuspegi onak dituzten puntu estrategikoen kokaguneak, eta abar). Adierazi plano guztietan iparra, eskala grafikoa eta taldekideen izenak.

1:2000 eskala gomendatzen da, baina herriaren ezaugarrien arabera alda daiteke (sekzioa 1:500 eskalan ere egin daiteke). Planoak PDF formatuan emango dira CD batetan (300 dpi-ko gutxieneko kalitatearekin, ondo orientatuak eta izenburu adierazkorrekin, adibidez: "2. Legazpiko kirol-ibilbidea.pdf"; CDaren azalean taldearen izenak eta herria errotulatuko dira; PDF edo plano bakoitzaren gehienezko pisua 10 megakoa izango da).

Oharra: Ikus http://212.145.146.10/ejercicio/concursos/concursos_ocam/060615_itinerarios/060615_iu_doc.html webguneko "*2. PLANOS DE LOS ITINERARIOS*" ataleko PDFak, adibide gisa. Bestalde, jakingo duzuenez, PDFak CAD programatik zuzenean sor daitezke; PDFak inprimatzeko softwarerik eduki ezean, http://sourceforge.net/projects/pdfcreator/ webgunetik *PDFCreator* programa askea jeitsi daiteke. Eta bukatzeko, herrien CAD planoak ─topografikoak zein partzelario katastralak─ dxf formatoan http://www.gipuzkoa.net/ webgunetik doan jeitsi daitezke.

Ariketak **abenduaren 20**ko eskolaren hasieran emango dira bukatuta

Donostian, 2010eko azaroaren 22an

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño